



ARGAZKIAK: AFP

IKUSMIRA

AEB-ETAN DENA DA POSIBLE, OKERRENA ERE

Munduko «demokraziarik zaharrenean», azken mendean bere burua eredu moduan saldu duten Ameriketako Estatu Batuetan, kaosa da nagusi hauteskundeen ostean. Boto kopuruari dagokionez Joe Biden demokrata aise gailendu bada ere, estatu bakoitzak ematen dituen hautatzaile kopuruari dagokionez lehia oso estua da eta emaitza oso onak atera dituen Donald Trump presidenteak aspaldian iragarri zuen gidoiari jarraitu dio: iruzurra salatu eta kontaketa amaitu baino

lehen bere garaipena aldarrikatu. Horrela, bada, bere jarraitzaileak sutan jartzea du helburu, baina demokrata bozkatu duen jendearen artean ere haserrea nagusitzen ari da. Azken horien ustez, Etxe Zuriko maizterrak ez du emaitza errespetatu eta, galtzen badu, ez omen du kargua uzteko asmorik. Zenbait adituren arabera, AEBetan intentsitate urriko gerra zibil bat sor daiteke. Zoramenen dirudi lerro hauek idazten ari garen bitartean. Baina «AEBetan dena da posible» dioten leloak gero eta zuzenagoa dirudi, baina zentzurik txarrean. Dabid Lazkanoiturburu

